



Live Streaming:



Catálogo / Katalogo:



*Programa financiado por:
Programaren finantziatzaileak*



*Promueve:
Sustatzaileak*



EUREKA

*Colaboran
Kolaboratzaileak:*



SAREAN

Koloretako burdin eta Entrehuertas

*Santander: irailaren 26an, Eureka (San Simón, 8) /
Bilbo: urriaren 3an, Sarean (Mariaren Bihotzaren plaza, 4)*

Entrehuertas e hierro de colores

*Santander: 26 de Septiembre. Eureka (San Simón 8)/
Bilbao: 3 de Octubre. Sarean (Plaza Corazón de María 4)*

Koloretako burdin eta baratze artean izenburuak Santanderreko Entrehuertas auzoa aipatzen du, Eureka kokalekua, eta Bilbo barruan RMOren jardun kulturalaren hartzaile nagusia den Bilbo Zaharra - San Frantzisko barrutiko muin historiko eta formala: burdina. Biak dira kolorez betetako langile-auzoak. Kalitate handiko horma-irudiek janzten dituzte aspalditik bietako paretak.

Horien inguruan ibilbide bat egitea da gure asmoa, horma-irudiak ezagutarazteko eta bi erakundeetatik gertu dauden zenbait artisten azken aldiko egitasmoen berri emateko, bi hirietako sortzaileen arteko hartu-emana eta adiskidetasuna bilatzen duen topaketa egin bitartean. Gure esperientziei buruz hitz egingo dugu bertan, eta teknologia berriek presentzia handia izango dute bai erakutsiko den artean bai hura hedatzeko bitartekoetan.

Entrehuertas e hierro de colores hace referencia al nombre del barrio de Santander –Entrehuertas- donde se sitúa Eureka y al sustrato histórico y formal del distrito de Bilbao donde más incide RMO en su actividad cultural, Bilbao La Vieja – San Francisco, el hierro. Son dos barrios obreros llenos de colores. Murales de gran calidad inundan sus calles desde hace años.

Nuestra intención es recorrerlos, dándolos a conocer y descubriendo al público nuevos proyectos de artistas cercanos a ambas organizaciones, y, a la vez, generando encuentros entre los diferentes creadores de ambas ciudades a través de lazos de intercambio y hermandad. Unos encuentros donde hablaremos de nuestras experiencias y donde las nuevas tecnologías estarán muy presentes, tanto en el arte que se muestra como en los medios utilizados para su difusión.

Santanderreko egitaraua

Programa en Santander



Entrehuertas

Todos los eventos podrán ser seguidos a través de FaceBook Live desde el sitio de FB de MEM Bilbao y en diferido a través de nuestro canal de Vimeo (<https://vimeo.com/user72127862>)

Ekitaldi guztiak FaceBook Live bitartez zuzenean jarrai daitezke FBko MEM Bilbao gunean, eta gure Vimeo kanalean (<https://vimeo.com/user72127862>) egongo dira aurrerago ikusgai.

Irailak 26, larunbata

11 h. Eureka

Ibilbidea, Entrehuertaseko graffitiaren munduan barrena (publiko guztientzat)

12:30 h. Eureka

Erakustetaren inaugurazioa:

Jessica Llorente

Hajar Moussa (Maroko)

Anaïs Boudot (Frantzia)

Elkarren arteko pintxada: Ganzo, ikusizkoak / Radithor, musika elektronikoa.

17 h. Eureka (sarrera mugatua, edukiera bete arte)

Saioa: “ricoroces/dorje”-ren “Sólo Vinilos” ///”/rikuras-vriladas”.

18 h. Eureka (sarrera mugatua, edukiera bete arte)

Marta Mantecónen hitzaldia: “Muralistas pese a todo”.

19 h. Eureka (sarrera mugatua, edukiera bete arte)

Uhin fanzinearen eta Eclectic Reactions diskoetxearen aurkezpena: Yeray Portillo.

19:30 h. Eureka (sarrera mugatua, edukiera bete arte)

Arte interaktiboa:

Victoria Ascaso.

Bideo-sorkuntza:

Oihane Iraguen,

Liane Lang (Ingalaterra-Alemania)

Bideokontzertua:

L. Alexis Emelianoff (Quebec)

20:30 h. Eureka (sarrera mugatua, edukiera bete arte)

Zuzeneko saioa:

Miquel Izarra (Passion Farolas)

Raquel Asensi

Yeray Portillo (Radithor).

Sábado 26 de Septiembre

11 h. Salida desde Eureka

Recorrido por el mundo del graffiti de Entrehuertas. (Para todos los públicos)

12.30 h. Eureka

Inauguración exposición:

Jessica Llorente

Hajar Moussa (Marruecos)

Anaïs Boudot (Francia)

Pinchada conjunta visual de Ganzo/Radithor música electrónica.

17 h. Eureka (Entrada limitada hasta cubrir aforo)

Sesión: “Sólo Vinilos” de “ricoroces/dorje” ///”/rikuras-vriladas”.

18 h. Conferencia “Muralistas pese a todo” (Entrada limitada hasta cubrir aforo)

con Marta Mantecón.

19 h. Eureka (Entrada limitada hasta cubrir aforo)

Presentación fanzine Uhin y sello Eclectic Reactions: Yeray Portillo.

19:30 h. Eureka (Entrada limitada hasta cubrir aforo)

Arte interactivo:

Victoria Ascaso.

Videocreación:

Oihane Iraguen,

Liane Lang (Inglaterra-Alemania)

Videoconcierto:

L. Alexis Emelianoff (Quebec)

20.30 h. Eureka (Entrada limitada hasta cubrir aforo)

Live:

Miquel Izarra (Passion Farolas)

Raquel Asensi

Yeray Portillo (Radithor).

Programa en Bilbao

Bilboko egitaraua



Urriak 3, larunbata

11 h. Artea Bilbo Zaharrean / San Frantziskon: Ruth Juan eta beste zenbaiten horma-irudiak

Ruth Juan eta Txema Agirianorekin

(Izen-emateak: 618 629 817)

12:30 h. Sarean eta Mariaren Bihotzaren plaza (sarrera libre, edukiera mugatuarekin)

Erakusketa eta jendaurreko topaketak Mariaren Bihotzaren plazan

Tamara García-ren instalazioa

VRILnoise/Paco Arráez, bideo-sorkuntza: "Revolution N9".

Erakusketa:

Jessica Llorente

Hajar Moussa (Maroko)

Anaïs Boudot (Frantzia)

19 h. Sarean (sarrera mugatua, edukiera bete arte)

Söon i Noki (ikus-entzunezko performancea)

La UCA (musika eta zuzeneko bideoak)

San Son DYeah! (pintxada)

19:30 h. LIVE! streaming

L. Alexis Emelianoff (Quebec)

Sábado 3 de Octubre

11 h. Arte en Bilbao La Vieja / San Francisco, murales de Ruth Juan y otros

Con Ruth Juan y Txema Agiriano

(Inscripciones: 618 629 817)

12.30 h Sarean y Plaza Corazón de María (entrada libre con aforo controlado)

Expo y encuentros abiertos al público en la Plaza Corazón de María

Instalación de Tamara García

VRILnoise/Paco Arráez, video creación: "Revolution N9".

Exposición:

Jessica Llorente

Hajar Moussa (Marruecos)

Anaïs Boudot (Francia)

19 h. Sarean (entrada limitada hasta cubrir aforo)

Söon i Noki (performance audiovisual)

La UCA (música con videos en directo)

San Son DYeah! (pinchada)

19:30 h. LIVE! streaming

L. Alexis Emelianoff (Quebec)



Ruth Juan

Bartzelonako ilustratzailea da eta Bilbon bizi da, eta berton trebatu zen ofizio horretan. Ruth Juanen lanak hainbat esparruren eragina dauka, errealtateari buruz daukan ikuspegia baldintzatu baitute eta bere sorkuntzen unibertso berezia sortu baitute.

Bere ibilbide profesionala zirku eta antzerki ikuskizunetarako jantziak egiteko tailer batetik eta bere lehen liburua autoeditatzeko BilbaoArte Fundazioan beka batetik igaro da, gaur egun ilustratzaile freelance gisa finkatu arte.

Aurreko guztiak arrasto bat uzten du obra pertsonalean, ezaguna eta beti koloretsua, gai sozialetatik gertu dagoena eta bere begiradaren bidez iragazitako munduaren irudikapen soiletik sortzen dena.

Hainbat lanetan hartu du parte: San Frantzisko auzoa janzten duten horma-irudi zabalak, Elkar argitaletxeekin egindako hainbat libururen argitalpena edo irudi grafikoko lanak. Beti dago prest formatuak esploratzeko, neurriak handitzeko edo espazioetan eta errealtateetan esku hartzeko.

Ilustradora barcelonesa afincada en Bilbao, donde se formó en este oficio. El trabajo de Ruth Juan está influenciado por la variedad de ámbitos a los que se ha acercado, los cuales han condicionado su enfoque de la realidad y han dado lugar al universo singular de sus creaciones.

Una trayectoria profesional que ha pasado por un taller de confección de vestuario para espectáculos de circo y teatro, o por una beca en BilbaoArte Fundazioa para autoeditar su primer libro, hasta afianzarla como ilustradora freelance en la actualidad.

Todo lo anterior va dejando un rastro en forma de obra personal, reconocible y siempre colorista, cercana a temáticas sociales y que nace de la simple representación del mundo filtrado a través de su mirada.

Extensos murales que visten el barrio de San Francisco en el que vive, la publicación de varios libros con editoriales como Elkar, o trabajos diversos de imagen gráfica son el tipo de proyectos en los que se ha involucrado.

Dispuesta siempre a explorar formatos, ampliar tamaños o intervenir espacios y realidades.

<https://junitamakina.es>



Passion Farolas / Mikel Izarra Montero

Mikel Izarra kazetaria, musikaria eta kultur teknikaria da formazioz. Bere jardura kultur kudeaketan eta musikan zentratzen du.

Passion Farolasek gizarteari eta soinuari buruzko gogoeta proposatzen du, ekintzarekin batera aldatzen doan gai-esparru komun baten arabera egokitu-tako kontzeptuak sonifikatuz.


Ordenagailuaren bitartez, Live Coding Sonic Pi programa dela medio, Google bezalako ohiko online bilatzaileen emaitzak sonifikatzen dira. Sonifikazioa nahiz bilaketak pantailan proiektatzen dira, denbora errealean, bilaketa eta sonifikazio prozesua publikoarekin partekatzeko. Performance alderraia sortzen da hala, ausazkoa, non soinu-diskurtsoa datu eta soinuen begizta amaigabe bilakatzen den.

Mikel Izarra es periodista, músico y técnico cultural por formación. Centra su actividad en la gestión cultural y la música.

Passion Farolas propone una reflexión social y sonora a través de la sonificación de diferentes conceptos adaptados a una temática común que varía en función de la acción.

A través del ordenador y mediante el programa Live Coding Sonic Pi se sonifican resultados de búsquedas de buscadores online habituales como Google. Ésta sonificación y éstas búsquedas son proyectadas a tiempo real en una pantalla, haciendo participe al público del proceso de búsqueda y sonificación. Generando así una performance errante, aleatoria donde el discurso sonoro deviene un bucle sinfín de datos y sonidos.

passionfarolas.bandcamp.com compassionfarolas.bandcamp.com




Victoria Ascaso

Zer motatako irudiek eraikitzen dute gure intimitatea ingurune digitaletan? Posible al da nor bere espazio intimoa gainerakutsita ere anonimo izaten jarraitzea? Nola sor ditzake mugikor batek lotura afektiboak pertsona ezezagunen artean?

Victoria Ascasok ikerketa akademikoaren, praktika artistikoaren eta diseinu espekulatiboaren mugetan lan egiten du. Bere proiektuek diziplinaz haraindikoa izaera dute maiz, eta elkarrekintzaren, lurraldetasunaren eta jolasaren elementuak txertatzen dituzte. Horien bidez, garapen teknologikoa, parte-hartzearen paradigma, eta gailu teknologikoek mediatutako pertsonen arteko harremanen nolakotasuna zalantzan jarri nahi ditu.

¿Qué tipo de imágenes construyen nuestra intimidad en los entornos digitales?
¿Es posible permanecer en el anonimato sobre-exponiendo el espacio íntimo?
¿De qué manera un móvil puede generar vínculos afectivos entre personas desconocidas?

Victoria Ascaso trabaja en los límites de la investigación académica, la práctica artística y el diseño especulativo. Sus proyectos tienen con frecuencia un carácter transdisciplinar e incorporan elementos de interacción, territorialidad y juego. Con ellos busca cuestionar el desarrollo tecnológico, el paradigma de la participación y la manera en la que suceden las relaciones interpersonales cuando están mediadas por dispositivos tecnológicos.



The unholy Hajar Moussa

Miniatura-marrazkiak eta urre-orriaren teknika erabiltzen dituzten ilustratzaileak eta beldurrezko eleberri grafikoek egileak. Komikigintza ikasi zuten Arte Ederren Institutuan (Tetuan, Maroko), Marokoko prostituzioaren eta sorgintzaren gainean lan eginez (2006-2011). Ondoren, Komikiei eta Eleberri Grafikoei buruzko Master bat egin zuten Fulbright ikasle gisa, EEBBetako hiri sorginduenetakoa den Savannah-n (Georgia).

Savannah-ko Arte eta Diseinu Institutuan (2011-2013) egindako ikasketak bukatutik, non prostituzioa, trabestismoa eta magia beltza ikertzen jarraitu zuten, Genevako Unibertsitatean Teologia ikastea erabaki zuten, kode erlijiosoak eta genero sozialak hobeto ulertze eta deszifratze aldera.

Asko bidaiatzen zuten, mihise handiek enbarazu egiten zieten: horregatik hasi ziren miniaturrekin. 2012an beren adiskide perfektuak bihurtu ziren. Intimoak, erabilerrazak, begiluzeengandik ezkutatzeko aproposak. Arte erlijiosoarekiko (miniatura sakratuekiko, bereziki) sentitzen dugun lilura ere konexio eta inspirazio iturri izan da. Ez ditugu santuak gaitzat hartzen. Infernua eta deabruak baizik, beren buruak maitatzera emandako gizonak, nartzisista handiak. Urre-orria, zeruko izakien sinbolo ohia, deabruaren izakiak ilustratzeko gure bidea da hemen.

Ilustradoras y novelistas gráficas dedicadas al dibujo de miniaturas y a la técnica del pan de oro. Estudiaron Cómic en el Instituto de Bellas Artes (Tetuán, Marruecos), trabajando sobre prostitución y brujería en Marruecos (2006-2011). Después, hicieron un Máster en Cómic y Novela Gráfica, como estudiantes Fulbright, en una de las ciudades con más embrujo de EEUU: Savannah, Georgia.

Al acabar sus estudios en el Instituto de Arte y Diseño de Savannah (2011-2013), en los que siguieron explorando el mundo de la prostitución, el travestismo y la magia negra, decidieron estudiar Teología en la Universidad de Ginebra, para entender y descifrar mejor los códigos religiosos y los géneros sociales.

Empezaron con las miniaturas porque viajaban mucho y era complicado andar con grandes lienzos. En 2012, se convirtieron en una compañía perfecta, íntima, fácil de manejar, fácil de esconder de los ojos curiosos. Nuestra fascinación con el arte religioso (especialmente con las miniaturas sagradas) es también una forma de conexión e inspiración. No trabajamos sobre los santos. Trabajamos sobre el infierno, los demonios, los hombres dedicados a amarse a sí mismos, los grandes narcisistas. El pan de oro, que fue símbolo de las criaturas celestiales es aquí nuestro modo de ilustrar las criaturas demoniacas.



Studio Spectres Liane Lang

Liane Langen animazioa bere Hoxtongo estudioan egin zen 2012ko aste batean, eta 2019ko bertsio berrituan erakusten da hemen, soinu hobearekin. Berlin Hiriko Museo sarearen parte den James Simon galerian aurkeztu zen bertsio hori, Nah Am Leben erakusketan. Filmatzeko momentuan, estudioa zegoen bezala utzi zen: ordenatu gabe, antolatu gabe, bere proiektu amaitu gabeen, lan tresnen eta detrituen ausazko bat-bateko argazkia. Kamerak objektuetan zehar bidaiatzen du, baita nolabaiteko interesaz egin ere, eskulturetatik baztertutako molde, gomazko eskularru eta igeltsu-hauts piloetara. Filma miaketaren eta voyerismoaren artean mugitzen da, eta atmosfera bitxia sortzen du, intrigantea eta klaustrofobikoa aldi berean.

Liane Lang Londresen basea duen artista bat da. Dublingo Arte eta Diseinu Institutu Nazionallean ikasi, Goldsmiths Collegen Arte Ederretako lizentziatura osatu, eta Londresko Royal Academy Schools delakoetan graduondoko diploma bat lortu zuen.

Bere obra toki askotan erakutsi du, Erresuma Batuan nahiz nazioartean: Beaux Arts Calais Museoan, PS1 New York-en, eta Heidelbergeko Kunstverein-en, besteak beste. Photofusion saria, Goldsmiths Collegeko Tooth Travel saria eta Royal Academy Schoolsetako Cheneviere saria irabazi ditu. 2018an bakarkako erakusketa egin zuen Londreseko James Freeman galerian, eta bere lana Royal Academy of Arts-eko From Life erakusketan parte hartu zuen.

Liane Lang es una artista con sede en Londres que estudió en el National College of Art and Design de Dublín y completó una licenciatura en Bellas Artes en el Goldsmiths College seguido de un Diploma de Postgrado en las Royal Academy Schools, Londres.

Ha mostrado su obra ampliamente tanto en el Reino Unido como a nivel internacional, incluido el Musée de Beaux Arts Calais, PS1 Nueva York y Kunstverein Heidelberg. Ganó el premio Photofusion, el premio Tooth Travel Award en Goldsmiths College y Premio Cheneviere en las Escuelas de la Royal Academy. En 2018 ha realizado una exposición individual en Londres en James Freeman Gallery y su trabajo fue incluido en From Life en la Royal Academy of Arts.

La animación de Liane Lang se realizó en su estudio de Hoxton en el transcurso de una semana en 2012 y se muestra aquí en una versión reeditada con sonido mejorado de 2019. Esta versión se realizó para la exposición Nah Am Leben, James Simon Gallery, Staatliche Museen zu Berlin. Para la filmación, el estudio se dejó como estaba, sin ordenar, sin organizar, una instantánea aleatoria de sus proyectos inacabados, herramientas de trabajo y detritos. La cámara viaja a través de objetos con cierto interés, desde las esculturas hasta los moldes desechados, guantes de goma y montones de polvo de yeso. La película oscila entre el escrutinio y el voyerismo, generando una atmósfera extraña que a su vez es intrigante y claustrofóbica.



Jessica Llorente

Zendu den, egoa albo batera utzi duen edo barruan inor gabe geratu den subjektuaren identitatea adierazten saiatzen da artista. Eta identitate horrek hutsik lagatako gainazalaren bitartez egiten du hori, haren hondarren, aztarnen eta oinatzen bitartez. Bideoa eta argazkigintza dira motibo horiek atzemateko tresna nagusiak: artistaren aurrean errebelatzen den subjektuaren barneko “izate” sakonaren bilaketa.

Mummia refiere en árabe a un tipo de resina de betún empleada en los ritos de embalsamamiento o momificación. La imagen fotográfica es una más de las técnicas desarrolladas para evitar la degradación y preservar los cuerpos más allá de su propia muerte. La fotografía, en alianza con la ciencia y la medicina, liberó ese potencial no solo para los cuerpos suntuarios y poderosos, también para los cuerpos obscenos, desvitalizados o enfermos. Definiendo las formas al margen de cualquier contexto naturalista y apoyándose también en el tratamiento de resinas, Jessica Llorente hace que las momias agemeladas de las ratas -el animal que representa en nuestra cultura lo *asqueroso* por excelencia: del latín *esch*āra***, * la costra oscura que resulta de la mortificación de la carne- naveguen sobre un negro absoluto que remite a los fondos meta/físicos y la iluminación abstracta de la plástica barroca.

<https://jessicallorente.com>

Eclectic Reactions, Uhin fanzine, Al aire Yeray Portillo, aka Radithor Aurkezpena: Eclectic Reactions Aurkezpena: Uhin fanzine Soinu-performancea: Yeray Portillo, aka Radithor

Yeray Portillok ateratzen duen lehen LPa da Al Aire. Radithor ezizenez, WLDVrekin batera Eclectic Reactions zigiluaren jabea da Yeray, eta Burgoseko Crystal Mine zigiluaren Uhin fanzinearen sortzaileetako bat.

DJ gisa egiten duen lana duela 15 urte baino gehiago ezagutzen da Euskal Herriko kabina elektronikoetan. Azken aldian, Distopia Clubeko erantzuleetako bat izan da, eta Mugako Festibalaren lehen edizioari hasiera eman zion. Bere alderdirik esperimentalenean, ambient/drone, computer music, musika konkretua eta musika industrial moduko joerak gertu ditu. Askotariko baliabideak eta tresna konpositiboak erabiltzen ditu ia berrogeita hamar minutuko album honen parte diren zortzi piezetan.

Uhin fanzinea online dago, pdf formatuan, eta paperean. Baina, batez ere, musikariek, kazetariek eta, oro har, zaleek gure iritziak askatasun osoz adierazteko eta gure aurkikuntzak partekatzeko eta ezagutarazteko balio duen plataforma bat da. Musika Elektroniko -bitarteko elektronikoen bidez sortutako eta sensibilitate artistikoaz antolatutako soinuen bilduma, alegia- “aurreratu”, “zail” edo “ez hain adeitsu” horri buruzko aldizkaria izateko bokazioarekin jaio ginen.

https://issuu.com/uhin/docs/uhin_0__issuu

https://issuu.com/uhin/docs/uhin_1_digital

<https://www.facebook.com/uhinfanzine/>

Eclectic Reactions Bilboko musika elektronikoko zigilu bat da, WLDVek (Nathan Church) eta Radithor-ek sortua eta kudeatua, eta elektronikaren zatirik minoritario, esperimental eta undergroundenera bideratua.

Al Aire es el primer Larga duración de Yeray Portillo, aka Radithor, dueño junto a WLDV del sello Eclectic Reactions y cofundador del fanzine Uhin para el sello burgalés Crystal Mine.

Su trabajo es conocido en las cabinas electrónicas del País Vasco como DJ desde hace mas de 15 años, y mas recientemente habiendo sido uno de los responsables de Distopia Club o ser el encargado de abrir la primera edición de Mugako Festibala. En su vertiente mas experimental, cercana al ambient/Drone , la computer music, la música concreta o la música industrial, utiliza diferentes recursos y herramientas compositivas para presentar un total de ocho cortes en casi cincuenta minutos de álbum.

Uhin es un fanzine online en formato pdf y en papel. Pero ante todo es una plataforma donde músicos, periodistas y aficionados en general podemos expresar con total libertad nuestras opiniones y compartir y dar a conocer nuestros descubrimientos. Nacimos con vocación de revista de Música Electrónica “avanzada” o “difícil”, “menos complaciente”, entendida como toda colección de sonidos creados principalmente por medios electrónicos y organizada con una sensibilidad artística.

Eclectic Reactions es un sello de música electrónica de Bilbao creado y gestionado desde 2014 por WLDV (Nathan Church) y Radithor, enfocado en la parte mas minoritaria, experimental y underground de la electrónica.

<https://crystalmine.bandcamp.com/album/al--aire>

https://issuu.com/uhin/docs/uhin_0__issuu https://issuu.com/uhin/docs/uhin_1_digital <https://www.facebook.com/uhinfanzine/>

<https://eclecticreactionsrecords.bandcamp.com/>

<https://www.facebook.com/eclecticreactions/>

<https://soundcloud.com/eclectic--reactions>

<https://www.instagram.com/eclecticreactions/>

<http://www.eclecticreactions.com/>



L. Alexis Emelianoff

Alexis Emelianoff, Montrealen (Kanada) bizi den soinu-artista, tresna elektriko zein akustikoekin aritzen da asmatzaile eta jotzaile gisa. Hurbilketa dibergentea du oso, materialei eta fisikari buruzko ikerketaren esplorazioan oinarritua. Hala, tenperatura aldaketek, magnetismoak eta uraren eroankortasunak bere zenbait instalazio elikatu dituzte. Diseinatzen dituen sistemek inguru elektrikoa eta bere soinu-forma 'zeharkatzeko' aukera ematen dute, forma hori periodikoa izan, ala arritmikoa, urragarria, tematia... hauek direla pareten atzean eta eguneroko objektuetan presente dagoen aktibitatearen ezaugarri espresiboak.

Gaur egun, CIRMMT ikerketa erakundeko kide da Alexis, eta Perte de Signal media-art kolektiboko kide gonbidatua.

L. Alexis Emelianoff es una artista sonora residente en Montreal (Canadá), dedicada a la invención y a la actuación con instrumentos acústicos y electrónicos. Su aproximación es altamente divergente y se basa en explorar la investigación sobre materiales y física. Los cambios de temperatura, el magnetismo y la conductividad del agua son elementos que han animado instalaciones suyas. Diseña sistemas que permiten 'atravesar' el medio eléctrico y su forma sonora, sea esta periódica, arrítmica, abrasiva, obstinada... trazos expresivos de la actividad presente tras las paredes y en los objetos de uso cotidiano.

Actualmente, Alexis es miembro de la organización de investigación CIRMMT y miembro invitada del colectivo de media-art Perte de Signal.

<https://www.lutheriepostmoderne.com>



Oihane Iraguen Zabala

Ohiane Iraguen Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua da (2007) eta Arte Garaikide Teknologikoko eta Performatiboko Masterra eta Hezkuntza Artistikoko Masterra egin ditu (205). Doktorea da Arte Ederretan Euskal Herriko Unibertsitatean, Arte eta Teknologia Departamentuan. Bere tesia (2019) Akusmatika eta kutxabelzte. Arrotzatze prozesu garaikideak soinu artean. da. Bertan ikertu du soinu-praktika, hots, soinua eragiten duen iturria ezagutu gabe entzutea sustatzen duen prozesua/praktika. Iraguenentzat akusmatikak komunikazioaren ikusizko esparrua ekiditzen badu ere, bere barne funtzionamendua ezta egiten du, kutxa beltz baten antzera jokatzen du. Kanpo estimuluek bertan eragiten dute, kutxa barnean (ez)ezagunak diren irudi-ahotsez osoturiko pentsamendu eta emozioak martxan jarritz.

Input hauei ematen zaion output-a, erantzuna, aztertu ezean kutxa beltzen barneko erresonantziak ikertzean datza lan hau. Tesiaren xedea da soinu praktika intermediak aztertzea, praktika akusmatikoak ikertzea, ziberfeminismoa ariketa akusmatiko garaikideatzat proposatzea eta ezezaguna (kutxa beltz bat balitz ulertuta) eta ezagunaren (kutxa gardena) arteko tira-birak azaltzea. Tesiaren objektua arte garaikideko praktika akusmatikoetan erabilitako teknologiak sortzen dituen irudi mentaletan euki ditzakeen eragina aztertzea. Horrekin bat, eremu birtual zein mentalean alderdi bisualen desagertpenak dituen eraginak ikertzea.

Ohiane Iraguen es Doctora en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco en el Departamento Arte y tecnología y profesora en la misma facultad. En los últimos años ha centrado su investigación en el sonido y sobre todo en los procesos tecnológicos para el extrañamiento del sonido. El resultado de estos estudios se ha reunido en la interesante tesis, recientemente presentada y titulada “Acusmática y blackboxing”. En este trabajo analiza la interacción entre el espectro audible, el aspecto visual y lo desconocido.

Licenciada en Comunicación Audiovisual también ha realizado el Máster en Arte contemporáneo tecnológico y performativo y el Máster en Educación Artística.

En 2017 obtuvo la Beca de Artes Plásticas y Visuales de la Diputación Foral de Bizkaia y además ha realizado exposiciones en el Festival MEM 2018, NY Space (Manchester), Future Fest Art Prize (Londres), III Festival Explora, OKELA Sormen Lantegia (Bilbao) y Bread & Butter (Berlín). Según explica Oihane Iraguen Me interesan las prácticas sonoras que suprimen el aspecto visual generando así imágenes mentales. Extrañas, únicas, compartidas... desviadas, íntimas. Lo que tú oyes, lo que oigo yo, la escucha mutua, la escucha introspectiva, buscar el sonido detrás del sonido.

La escucha es una acción íntima, donde pelean el sonido y el sentido. Fuera del sentido, de lo visual, de las fronteras de la lógica, un ruido... Un murmullo... Oihane Iraguen ha investigado la práctica sonora desde la acusmática, proceso/práctica que fomenta la escucha desconociendo la fuente que origina el sonido. La acusmática no diferencia entre el ruido y el silencio, es una práctica que interpela la propia intencionalidad de la escucha, un proceso que interroga al sonido sobre el propio sonido. La acusmática es un proceso, una práctica, un modo de escucha y un sistema perceptivo.

Considero -continúa la artista-, la acusmática como una práctica bruja contemporánea, una herramienta para la resistencia, una voz sin cuerpo, un cyborg, un sonido fantasmagórico. Todo ello hace que esta práctica sea bidireccional: crea y refuerza colectivos periféricos sin la necesidad de la presencia física, y a su vez, potencia el conocimiento, el imaginario y el refugio virtual tanto individual como colectivo.

<https://vimeo.com/user3241537>



Txema Agiriano

Komisarioa, ikertzailea, arte-kritikaria eta kultura-kudeatzailea.

Arte Ederretan Lizentziatua eta Arte eta Teknologia Berrietan Aditua Euskal Herriko Unibertsitatean. Bilboko MEM Nazioarteko Arte Esperimentalen Jaialdiko eta Bideodromo Nazioarteko Zine eta Bideo Esperimentalen Jaialdiko zuzendaria eta komisarioa.

Azken aldian egindako komisario-lanak:

Perte de Signal (Montreal, Kanada); Institut National des Beaux-Arts (Tetuan, Maroko); Myymälä2 Gallery (Helsinki, Finlandia); Centre d'art moderne (Tetuan, Maroko); Verge Gallery (Sydney, Australia); Galerie Paolo Boselli (Brusela, Belgika); Architektur Forum Oberösterreich (Linz, Austria); Zsenne Art Lab (Brusela, Belgika); 4bid Gallery (Amsterdam, Herbeherak); Arabako Artxibo Historikoa (Euskal Herria); Universidad Laboral (Xixon, Espainia); Parnüko Zinema Jaialdia (Estonia); Lëmbobineuse (Marseilla, Frantzia); Festival Spekro (Istanbul, Turkia); Issue Project Room (New York, Estatu Batuak); Sonic Circuits (Washington DC, Estatu Batuak); Kaleidoskop Theater (Kopenhague, Danimarka); Digital Media 1.0 La Nau (Valentziako Unibertsitatea, Espainia)...

Comisario, investigador, crítico de arte y gestor cultural.

Licenciado en Bellas Artes y Experto en Arte y Nuevas Tecnologías por la Universidad del País Vasco. Director y comisario del Festival internacional de Arte Experimental MEM de Bilbao y del Festival Internacional de Cine y Video Experimental Bideodromo.

Comisariados recientes:

Perte de Signal, Montreal, Canada; Institut National des Beaux-Arts de Tétouan, Marruecos; Myymälä2 Gallery. Helsinki (Finlandia); Centro de Arte Moderno Tetuán (Marruecos); Verge Gallery Sydney Australia; Galería Paolo Boselli Bruselas Bélgica; Architektur Forum Oberösterreich Linz Austria; Zsenne Art Lab Bruselas Bélgica; 4bid Gallery Amsterdam Países Bajos; Archivo Histórico de Álava País Vasco; Universidad Laboral Gijón España; Festival de Cine de Parnü Estonia; Lëmbobineuse Marsella Francia; Festival Spekro Estambul Turquía; Issue Project Room New York, Estados Unidos; Sonic Circuits Washington DC Estados Unidos; Teatro Kaleidoskop Copenhague Dinamarca; Digital Media 1.0 La Nau Universidad de Valencia España,...)

http://www.musicaexmachina.com/web_recetas/comisariados.html



Anaïs Boudot

Arte Ederrak ikasten ditu Metzen. Argazkilaritza Arlesgo École Nationale Supérieure de la Photographie eta Le Fresnoy-Studio Argazkilaritza, bideoa eta teknologia berriak. 2016. urtean Madrilgo l'Academie de Franceren parte izateko hautatua izan zen eta Casa Velázquez (ikertzaile eta sortzaile frantzesen hispaniar ikasketak) Santa Teresa de Jesús en pausoak jarraitzen zituen proiektu mistiko bat garatzen du Gaztelako paisaia eta herrietatik. BilbaoArte bekaduna, 2016tik Parisko Binome galeriak ordezkutzen da

Anaïs Boudot. Bellas Artes en Metz. Fotografía en la École Nationale Supérieure de la Photographie en Arles. Le Fresnoy-Studio, fotografía, video y nuevas tecnologías. En 2016, seleccionada para formar parte de l'Academie de France en Madrid, Casa Velázquez (estudio hispanístico de creadores e investigadores franceses) realiza un proyecto místico por paisajes y ciudades de Castilla tras los pasos de Santa Teresa de Jesús. Viaja por España. Becada en BilbaoArte. Desde 2016 es representada por la galería Binome de Paris.



San Son DYeah!

San Son DYeah! San Son San-en biki gaiztoa da, Bilbon bizi den diziplina-anitzeko artista, kantuen hitzak erabiliz berba egiteagatik eta festa feministetan, txosnetan eta jaialdietan jendea dantzan jartzeagatik ezaguna. Eguneroko surrealismoaren argazkigintza, DIYa, marrazki bizidun kutsuko ilustrazioa, eta bideoan zein animazioan egindako zenbait sartu-irten zeharkatzen ditu beren lanak, gatz bereziko begiradaz

San Son DYeah! is the evil twin of San Son, a Bilbao-based multidisciplinary artist also known for talking in song's lyrics and making people dance in feminist parties, txoznak and festivals. Their work moves across everyday surrealism photography, DIY stuff, cartoonish illustration and some incursion into video and animation from a particular witty eye.



Raquel Asensi

Raquel Asensik (Barakaldo, 1989) Bilbon bizi eta lan egiten du. 2015an Zeramika, Artea eta Funtzioa masterra bukatu zuen, eta gaur egundoktoregaia da EHUko Eskultura Saileko “Ikerketa Arte Garaikidean” izeneko Doktorego Programan. Portzelanaren diseinuan diharduen Sargadelos lantegializiar entzutsuan egin zuen praktikaldia. 2018ko ERTIBIL erakusketarako hautatu zuten eta Bilbao Arte Fundazioaren ekoizpen-beka bat jaso zuen, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Ikusizko Arteetarako dirulaguntza zenbait proiektutarako eskuratu ere. Gainera, sorkuntza eta ikerketa uztartzen dituen proiektu batean murgilduta dabil, perspektiba feministek 70eko eta 80eko hamarkadetan zeramikariloturiko praktika artistikoetan izan zuten eragina aztertzen. Bere ekoizpen artistikoa diziplinartekoa da; zeramikazko eskulturak, argazkigintza etagorputz-ekintza uztartzen ditu.

Mi práctica artística interdisciplinar en cerámica aúna piezas artísticas que he decidido llamar artefactos, productos que son consecuencia directa de sistemas de necesidades sociales y culturales. Los empleo como maneras de extender los límites materiales del cuerpo.

Algunos de mis trabajos se centran en la creación plástica de piezas, que plantean los problemas de la construcción de la identidad por medio de imágenes corporales. También hibrido conceptos como humano-máquina-natural-artificial.

Las extensiones corporales resultantes de esta práctica suelen ser fotografiadas en espacios limítrofes de la ciudad y el paisaje considerado natural. Estas imágenes pueden resonar con otras ciudades post-industriales donde el espacio y nuestra forma de vivir están cambiando rápidamente. Se genera un contraste entre una práctica relacionada con el cuerpo, lo tecnológico y la noción aprendida naturaleza, la cual se refleja como socialmente construida.

<http://raquelasensi.com>



Ganzo

HC proiektuetan kolaboratzen duen artista da Simul, hala nola Homenaje a Segundo de Chomón eta Homenaje a las revoluciones del 68 izenekoetan. Ganzo DJa da eta 15 urtetik gorako eskarmentua du musika elektronikoko ekoizle gisa.

Bere egitasmoen artean La Uca kolektiboaren sorrera dago (<https://www.facebook.com/colectivolauca/>), non dantzaren kultura elektronikoa eta zuzeneko bisualak batera sustatzen diren.

Beste diziplina batzuetako artistekin kolaborazioak egin ditu. Elektronikari eta Arduinori buruzko tailerrak eman ditu Santanderreko Eureka elkartearekin lankidetzan, eta soinu teknikaria da zenbait proiektutan

Ganzo lleva más de quince años como Dj, productor y promotor de música electrónica.

Entre sus proyectos más destacados esta la fundación del colectivo La Uca hace 8 años, en Santander, donde promueve la cultura electrónica de baile, dinamizando diferentes espacios de la ciudad. Además ha realizado y realiza diversas colaboraciones con otros colectivos, artistas de otras disciplinas, con la asociación Eureka en Santander e impartición de talleres para dar a conocer las técnicas de producción musical y Dj en torno a la electrónica.

<https://www.facebook.com/colectivolauca/>



Söon i Noki

Tamara García eta Paco Arráezek osatutako ikus-entzunezko performance-proiektua da Söon i Noki: naturako lehengaiak eraldatzean, eta haiekin bizitzera behartuta gauden material berriak ingurunera itzultzean, giza-ekintzak sortutako ingurune berriak eskaintzen dituen bizikidetzarako aukerak artisten erara esploratzeko laborategi esperimentalak. Ikerketaren lehen fase batean, material plastikoen eta itsasoaren arteko elkarreraginean jartzen dute arreta. Antropozeno, Kapitalozeno, Chtuluzeno eta plastiglomeratuak gisako kontzeptuekin lan egiten dute, eta material plastikoen eta uretako organismoen askotariko definizio kimikoekin, teoria filosofiko eta zientifikoetatik nahiz zenbait ikerketa-proiektu eko-feministatik edanez.

Paco Arráezek soinuarekin lan egiten du laborategian. Ingurune naturaletan egindako landa-grabazioetatik abiatu, gitarra eta piano melodiak erantsi, eta teknologia modularrekin nahasten ditu zuzenekoan, instalazioa biltzen duten giroko konposizio elektroniko emozionalak sortuz.

Tamara García bisualak arduratzen da. Laborategiaren alderdi honek plastikoen eta itsasoaren arteko harremana ikertzen du. Era ezberdinetako materialen konposizioak zehazki behatu eta mikroskopio-irudiak sortzen ditu, edo itsasoa bizileku duten landare edo plastikoen bideoak, eta zuzenean nahastu.

Paco Arráez y Tamara García llevan varios años colaborando juntos en diferentes proyectos. Bajo el nombre de Söon i Noki realizan directos (live) de música avanzada, electrónica y visuales, así como, vídeo instalaciones e intervenciones “site specific” como el proyecto HC2 en el que reflexionan sobre el medio ambiente y las posibilidades de continuar habitando y creando nuevas formas de vida. Ambos pertenecen a la Asociación Cultural Eureka en Santander desde donde generan diferentes iniciativas para la ciudad en relación con la cultura electrónica, visual y de performance, como el Instituto de Sonología Europeo o encuentros con otros colectivos. Han participado en el I Festival Internacional de Mapping y Artes Visuales El Puerto Encantado en Santander, en el Festival NORTOCIRCUITO, Les Naves de Gijón, en 2018, en los festivales La Noche de Europa y ProtoZoo, Santander, 2019.



Marta Mantecón

Artearen Historialaria Madrilgo Complutense Unibertsitatetik, arte-langile gisa burutu du bere jardun profesionala 1999tik, erakusketen komisariotza-lanetan, kultura-egitasmoak koordinatzen eta arte garaikidearen nahiz kultura bisualaren inguruan irakasten eta idazten. Zeregin horiez gain, kritika feminista eta antikolonialarekin, identitatea eraikitzeko prozesuekin, mugako arteekin eta ikasketa bisualekin zerikusia duten gaiak ikertzen eta hedatzen ditu. Gaur egun Robayera de Miengo aretoko zuzendaria da, CESINE Unibertsitate Zentroko Diseinu Graduetako irakasle-taldeko kide, eta UNATEko Arte Garaikidearen Historiako mintegiak ematen ditu. Zenbait elkarte eta instituziorekin lan egiten du eta M-Arte y Cultura Visual aldizkariko erredakzio-taldeko partaide da.

Historiadora del Arte por la Universidad Complutense de Madrid, desarrolla su actividad profesional desde 1999 como trabajadora de arte, realizando labores de comisariado de exposiciones, coordinación de proyectos culturales, docencia y escritura de arte contemporáneo y cultura visual. Completa esta actividad con la investigación y divulgación de temas relacionados con la crítica feminista y anticolonial, procesos de construcción identitaria, artes fronterizas y estudios visuales. En la actualidad es directora de la Sala Robayera de Miengo, miembro del cuerpo docente de los Grados de Diseño en el Centro Universitario CESINE e imparte los seminarios de Historia del Arte Contemporáneo en UNATE. Colabora con distintas asociaciones e instituciones y forma parte del equipo de redacción de la revista M-Arte y Cultura Visual.



Paco Arráez

VRILnoise, 12 urtez baxu-jotzaile gisa ibilia Lluís Llachekin, jazz-jotzailea Blau Marirekin, 13 CD argitaratutako zaratagilea, estudioko peoia, hamaika artisten kolaboratzailea, ekoizlea eta editorea. Esparru grafikoarekin topo egiteak bide bat ireki zuen Vrilnoiserentzat, soinu-esperimentazioaren dimentsio guztietara emana den bere ibilbide artistikoan urrats bat aurrera egitea, alegia, beste norbaitek zuzenean sortutako soinu materialaren gainean esku-hartzea ekarri duen aldetik. Eurekarekin eta Goethe Institutuarekin kolaboratzen du alemaniar film mutu espresionisten katalogoa zuzeneko musikaz lagunduta pantailaratzen. Artista polifazetikoa, zuzeneko bideo eta soinu-performance sortzailea. Pintorea eta poeta performista, hainbat emanaldi eta erakusketa egin ditu.

Recibió su formación musical en la Escuela de Música Moderna y Jazz, Esclat en Manresa (Barcelona) ha formado parte de diferentes bandas de punk, rock, jazzfusion, y orquestas. Bajista durante años del cantautor catalán Lluís Llach. Músico de estudio, productor musical y creador de bandas sonoras para cine mudo de “expresionismo alemán”, para el Instituto Goethe. Durante los años 90 se sumerge por completo en la música más experimental, comenzando una nueva fase de exploración musical e investigación, fuertemente influenciada por los géneros industriales y de ruido. Editó dos trabajos bajo el nombre de NIHIL, Elementos Electrónicos y Antes de Caín, los cuales presentó más tarde en el Sonar Music Festival en Barcelona. Actualmente, experimenta con todo tipo de sonidos para su proyecto VRILnoise, un proyecto que le gustaría describir como “ruido vital y espiritual”. VRILnoise se puede describir como una fuerza de creación, como una energía extraordinaria, la energía de nuestras propias almas, emociones y vida.

<https://pacoarraez.bandcamp.com>



Tamara García

Artista honen diziplina arteko proposamenek gure harreman sozial, politiko eta kulturalen ehundura analizatzen dute, lege ez-idatzien, ohituren eta tradizioen bitartez nola eratzen eta eraldatzen diren arakatuz. Leku-espazioa nola habitatzen dugun behatzen du, geopolitikaren inposizioen nola egokitzen gatzaizkion, eta, guran eragina duten eta klasifikatzengaituzten jokaerak eta jarrerak birtentsatu nahian, publikoaren eta pribatuaren kontzeptuen artean nola mugitzen garen, generoak eta goi eta behe kulturaren arteko mugak zalantzan jarritz. Zenbait teknikarekin egindako esperimentazioaren liluraz, materialetan aukera berriak aurkitzeko modua ematen dioten estrategiak kontzeptualak jarraitzen ditu, prozesuan zehar gertatzen denari garrantzia emanaz.

Artista cuyas propuestas de carácter multidisciplinar analizan el tejido de nuestras relaciones sociales, políticas y culturales, indagando cómo se conforman y modifican mediante leyes no escritas, costumbres y tradiciones. Observa el modo en que habitamos el lugar-espacio, cómo nos adaptamos a las imposiciones geopolíticas y cómo transitamos entre los conceptos público y privado para repensar los comportamientos y actitudes que nos condicionan y nos clasifican, cuestionando los géneros y las fronteras entre alta y baja cultura. Fascinada por la experimentación con diferentes técnicas sigue estrategias conceptuales que le permiten encontrar nuevas posibilidades en los materiales, dando importancia a lo que sucede durante todo el proceso.

<https://tamara-garcia.com/cv>



Rico Rocés

Irakaskuntza ertaineko katedraduna. Kultura-sustatzailea. Laurogeiko hamarkadan, FM saioak Radio Asturiasen, Vinilo de Colores eta Reaccion Psicótica-rekin. Eurekako kultura-koordinatzailea azken hamar urteetan.

Catedrático de enseñanzas medias. Promotor cultural. Programas en Radio Asturias Fm en los ochenta con Vinilo de Colores y Reaccion Psicótica. Coordinador cultural de Eureka en los últimos diez años.

<https://martesguagua.bandcamp.com/audio>



Bi bizilagun/ Dos vecinas

Auzoko bi bizilagun gara, bizizaleak eta bertako txokoetan adituak, kaleko kulturarekiko lotura estukoak. Eremu publikoan ibilaldi bat egingo dugu hiri-ko arteaz gozatzeko, eta horren gainean hausnartuko dugu.

Somos dos vecinas del barrio, vividoras y conocedoras de sus recovecos con un vínculo estrecho con la cultura de la calle. Daremos un paseo para disfrutar del arte urbano dentro del espacio público, y reflexionaremos sobre el mismo.

Fotos portada y contraportada / Azaleko eta kontrazaleko argazkiak: Anaïs Boudot

